

A T Z O K O

# Andoain

*eta andoaindarrak*

3. zbk.

1999ko martxoaren 28a

*Jolasak*



*eta  
ando  
ainda  
rrak*

# JOSTAILUAK, APENAS; JOLASAK, ERRUZKO PILA

Gaur egungo umeen aldean, orain aitundu eta amonduta dauden herritarrek askoz gehiago jolasten zuten, eta batez ere askoz gehiago jolasten zuten kalean. "Baina gaur eguneko umeen jolasten al dute ba?" dio Joxepa Ormaetxeak hilabete honetako gaiaz mintzatzen hasi orduko, "gaur egungoek ez daki-te jolasten eta!" gaineratzen du. Bat etorri da berarekin Miren Zarraga. Haren arabera, gaurko neska-mutikoez hainbeste gauza dauzkate eskolaz kanpo egiteko, denborarik ere ez dutela jolasean aritzeko. Orain dela mende erdiren bueltan, ordea, eskola edo lanetik kanporako -kasik umetan hasten baitziren lanean- denbora guztia jolasean ematen zuten neska-mutikoez.

## PILOTA

Mahaiaren bueltan bildu ditugun guztiak bat etorri dira esaterakoan mutilen artean pilota zela denbora pasarik preziatuena. Pilota kaskar bat hartu eta edozein paretaren kontra aritzen ziren tipi eta tapa, asperu ezinean.

Joxemari Olazabalek gogoratu duenez, egunero eta ahalik eta denbora tarte gehienetan ibiltzen ziren pilotan, eurak, batez ere, Kale Nagusiko arkupetan. Baina Bastero auzoan ez ezik, kontzejupuan ere makina bat partidu jokatuak dira guztiak. "Guk problema bat izaten genuen" jarraitu du Joxemarik; "artearen txikiak ginen, eta frontoian pelotan ari ginela beste horiek, Joxe Sakristaua eta konpainia, etortzen ziren, eta haundiagoak zirenez fuera!, lekua haiei utzi behar!, eta klaro, joan behar izaten genuen kontzejupera" -Barrez onartu du Joxe Sakristauak, baietz, halaxe izaten zela-

Etxeberrietakoek ere erruz jolasten zuten pelotan. "Gogoratzen



Joxemari Olazabal

"Frontoian pelotan ari ginela beste horiek, Joxe Sakristaua eta konpainia, etortzen ziren eta haundiagoak zirenez, fuera!, lekua haiei utzi behar! eta klaro, joan behar izaten genuen kontzejupera"

al zara, Miren, non aritzen ginen gu? galdetu dio Bixente Olanok. "Eskola atzean, gogoratzen dut bai". "Gela hau baino txoko handiagoa ez zen izango", zehaztu du Bixentek, "eta han ibiltzen ginen tipi eta tapa". Etxeberrietako beste askok maiz jotzen zuten Sorabillako frontoira pilota partiduak jokatzera.


"Eta nola jolasten genuen? Eskuz, jakina, palarik ez genuen eta. Erosteke dirurik ez zegoen ez palentzako ezta pelotenzat ere. Hortaz, etxean egin behar izaten genituen", dio Joxemari Olazabalek. Iñaki Arregik, adibidez, horrekin negozio txikia ere antolatu zuen: "Gogoratzen

Gerraren etorrerarekin, ez da dudarik, bizimodua erabat aldatu zen askorentzat. Zenbaitzuk artean koskor-tuak zirela harrapatu zituen gerra krudel hark eta jolasteari ere utzi behar izan zioten. Ume garaia gerra ostean bizi zutenek, berriz, arazo guzti horietatik urrun bizitu zuten garai hura, inozentziak.

Orduko jolasetariko batzuk belaunaldiz belaunaldi bere horretan iritsi dira gaur egunera. Beste batzuk, berriz, ezagutu ere ez dituzte egiten gaur egungo umeek, nahiz eta gure arteko herritarrek ondo gordeta dituzten memorian. Jolas horien artean nagusiak zein izan ziren ekarri nahi izan ditugu gogora, bada. Segidan dituzu haietako batzuk, asko eta asko kanpoan geratu zaizkigu eta.

naiz kanika bat edo paper puska bat edo zena hartu, hari-muturra bueltaka-bueltaka bildu eta pelotak egiten nituela. Baina eleganteak gero el, haria ondo trentzatuta zutela-eta jartzen nituen eta gero pezeta batean saltzen nituen".

Eta jakina, pilota haiekin sekulako ordu piloa emanda gertatzen ziren gertatzen zirenak. "Esku guztiak zartatuta edukitzen genituen. Bezperan pelotan jolastu bagenuen amarengana joaten ginen ur beroa jartzeko eskatuz. Han eskuak sartuta baretzen genituen", jakinarazi du Joxemari Olazabalek.



Kontzejupuan pilotan jolasten. Aurrean ageri dena Joxemari Olazabal da.


## FUTBOLA

Futbola kalean jolasten zen, alpagatak puskatu arte. Autorik eta apenas izaten zen, "de ciento en viento", Iñaki Arregik dioenez. Orduan piska bat erretiratu, kotxeari pasatzen utzi eta berriz ere baloiari osti-koak ematera. Baloiari, zerbait esatearren, garai hartan gutxik baituzten baloia izateko pribilejioa. "Trapuekin edo edozerekin egiten genuen baloia eta harekin jokatzeko genuen. Tomate potoarekin ere bai goial!", azaldu du Joxemari Olazabalek.

"Eta dudarik ez dago", gaineratu du, "futbolearen behintzat onenak

Etxeberrietakoak izan dira Andoaïnen, alde ederrarekin gainera!". Bixente Olanok kontatu duenez, Txitibarrek debekatua zien umeei futbol zelaian aritzea. Hala ere, uzten zien Ferroñiako paretaren ondo inguru hura guztia libre nahi zuten denbora guztia ibil zitezkeen baloiari osti-koak ematen. Eta hain zuzen ere, hango harrobitik atera izan dira Andoaingo futbo-

lari onenak. "Xabin Mujika, Joxe Aldasoro, Artola hiru anaiak, Zelarain, Mutilak..." gogoratu dute batzuek eta besteek.



Bizikletan ibiltzea denborapasa atsegina zen, bizkileta zuenarentzat, noski.

## KINKIÑAK ETA MAKIL JOKOAK

Bixente Olanok gogoratu duenez, bere ume garaian oso ohikoa izaten zuten mutikoen kinkiñetan aritzea. Ume garaia gerra ostean pasatu zutenek, berriz, horrelako jokuren bat bazela jakin bai baina ez dute eurak horretan ibili zirenik gogoratzen.

"Lurrean jartzen zen makil luze samarra bi puntak zorroztuak zituenak", hasi da azaltzen Bixente. "Mutikoen beste makil bat hartzen zuten eskuan, eta lurrean zegoenari muturren jo eta airean jartzea lortu behar zuen. Makil handia goitiki behera zetorrela 'da!' eman behar zitzaion berriz, ahalik eta urrutien

botatzeko. Eta azkenik, airean zen bitartean hiru kolpe jo behar zitzaizkion lurrari. Distantzia handienera uzten zuenak, haretzek irabazten zuen".

"Bazen beste modu bat makiletan ibiltzeko", dio Joxe Eizmendik, "haiek lohietan sartzea". Makilak ondo zorroztu eta lokatzetan sartu behar ziren kolpe batez; jokoa zen lohietan sartuta zen jolaskidearen makila botatzea. Iñaki Arregik gogoan duenez, modu diferentetan bota behar izaten zen makila lohietara "makila sudur gainean jarrita, atzekoz aurrera, bizkarrez...". Makila gaizki bota eta lohietan sartu gabe geratzen



Bixente Olano

"Lurrean jartzen zen makil luze samarra bi puntak zorroztuak zituenak. Mutikoen beste makil bat hartzen zuten eskuan, eta lurrean zegoenari muturren jo eta airean jartzea lortu behar zuen"

bazen zer gertatzen zen, berriz, Miguel Amasek kontatu digu: "Huts eginez gero hartzen zen ziri bat eta sartzen zen barruraino lokatzetan. Hura hortzekin heldu eta atera behar izaten zen ahoarekin, tiraka".

## GORDE-GORDEKA

Oraingo umeek dakiten modu berean aritzen ziren orduko haurrak ere gorde-gordeketan. "Gu asko aritzen ginen gorde-gordekan", gogoratu du Miren Zarragak. "Etxeberrietan askotan gordetzen ginen ikuluetan, eta beti haserretzen ziren jabeak. Alde hemendik! esanez hasten zitzaizkigun. Beti bronketan".

Maria Esther Arrietak gogoan du nola gordetzen ziren orain BBV dagoen lekuan. "Brunoren etxearen inguruan arbolak zeuden, eta askotan hantxe gordetzen ginen gu". Han



Maria Esther Arrieta

"Brunoren etxearen inguruan arbolak zeuden, eta askotan hantxe gordetzen ginen gu. Han arropak-eta aldatzen genituen korteak erre egiteko".

ezkutatuta, arropak eta aldatzen ibiltzen ziren, 'korteak erre' egin eta denak libratu zitezzen.

Azalpen horretantxe topatu dugu

gaur eguneko haurrek erabiltzen duten 'kontakerre' edo 'kortakerre' hitzaren jatorria, hain zuzen ere. Jakina denez, etxean geratzen denak gordeta daudenen bila jo behar du, eta haietako bat ikusiz gero bere izena ozen esan. Gordeta daudenek, baina, nahita jantziak-eta alda ditzakete, etxean -korteak, hauek dioten bezala- dagoenak huts egin dezan izena esaterakoan. Hala eginez gero, "Korteak erre" egin zuela esaten zen, huts egin zuela alegia. Hortik gaur eguneko 'kontakerre'.

## ALBIRAKA ETA ATXIKAKA

Albiraka deitzen zitzaion harrapaketatik ibiltzeari. Mikela Ansak esan digunez, etxean geratzen zenak 40 arte-edo kontatu behar izaten zuen eta gero gainontzekoen bila atera haiek harrapatu eta etxera ekartzeko. "Baina norbaiten bila ari zinela libre zegoen bat etxera etorritik gero hango guztiak libratzen zituen", zehaztu du.

Atxikaka ibiltzea albiraka ibiltzearen antzekoa zen oso. Ondokoa harrapatzea hori zen jolasaren funtsa. Bixente Olanok jolasaren arauak ondo ez ditu gogoratzen, baina eduki daki jolasaren izena nondik datorren: "Bitxia da. Zer esan nahi du atxikakak? Andoain inguruan hitz

hori galdu egin dugu baina atxikik esan nahi du heltzea, hortik jolasaren izena".

Orain bezala, orduko haurrak ere ibiltzen ziren harrapaketa katea osatuz. "Kortean zegoenak joan behar izaten zuen lagunaren bila. Jakina lehenengo harrapatu behar zuen bizkorrena; makalena harrapatuz gero 'se jodió'. Behin bizkorrena harrapatuta, biak joaten ziren hirugarrenaren bila, eta katea osatuta, gero

aritzen ziren, ardiak biltzen bezala, denak harrapatu artean", kontatu du Miguel Amasek.



Korrika apostuan hasteko prest, Goikoplazan.

## KANIKAK



Joxemari Olazabal

*"Pentsa kaniketan zenbat ibiliko ziren batzuk behatzeko azkazalak gastatuta izaten zituztela!"*

Joxe Sakristauaren arabera, jolas inportanteenetakoa zen kanikena "Herri osoa ibiltzen zen kaniketan", dio.

Iñaki Arregik gogoan duenez, kaniketan aritzeko bi estilo baziren gutxienez: "Bat zen triangulua. Distantzia batetik botatzen genituen kanikak, eta triangulotik bertena geratzen zena, huraxe zen jokoan hasten lehena. Trianguloaren hiru

puntetan jartzen zen kanika bana eta erdian beste bat. Jokoa hasi zuen harek egin behar zituen triangulotik denak atera".

"Bestea -gaineratu du Joxe Eizmendik- zen gua. Lehendabizi egin behar zenion beste kanika bati 'klisk' eta gero zure kanika guan, zuloan sartu. Orduan irabazten zen ondokoaren kanika".

Hala ibiltzen ziren, apustuan, zeinek kanika gehiago lortuko. "Pentsa kaniketan zenbat ibiliko ziren batzuk behatzeko azkazalak gastatuta izaten zituztela!" dio Joxemari Olazabalek. Hazkazalak gasta-gasta eginak izaten zituzten haiek, norma-lean, onak izaten ziren jolasean, eta gehientsuenetan eramaten zituzten poltsikoak bete kanika. Bestetzuk,

ordea, bizpahirurekin konformatu behar!

"Kanikak baziren batekoak, bikoak, baita hogeitabostekoak ere", gogoratu du Joxemari Olazabalek irribarrez. "Bai, hala zen, kristalezkoak egurrezkoak baino gehiago balio izaten zuen", gaineratu dio Mikela Ansak.

Kanika haiek, ahal zuenak, erosi egiten zituen. Bixente Olanok gogorazi duenez, baina, "baziren beste kanika batzuk limonada botilean etortzen zirenak". Hermetikoki itxita egoten ziren limonada botilak eta bolatxo harek presioa egiten zuen. Limonada amaitzen zenean, botila hautsi eta kaniketan ibiltzeko hartzen zen hura, bada.

## TXAPAK



Miguel Amas

*"Txapak hartu eta jartzen genituen trenbidean, trena gaintetik pasa eta txapal-txapal eginak uzteko".*

Limonada botilak gutxitan sartzen ziren etxean, baina sartzen zirenean, barrukoa ezezik kanpokoak ere ondo aprobetxatzen zuten. Presiorako zuen bolatxoa kaniketan aritzeko, eta tapa, berriz, bada, txapetan aritzeko!

Miguel Amasek gogoratzen duenez, limonada botilen txapak hartu

eta trenbidera jotzen zuten garai hartako mutikoek. "Txapak hartu eta jartzen genituen trenbidean, trena gaintetik pasa eta txapal-txapal egin da uzteko".

Jokoa nola egiten zen Joxemari Olazabalek azaldu digu. "Arrasto bat egiten zen lurtean eta tapa!, behatzekin txapari bultzatu eta arrasto

haren ahalik eta ondoen utzi behar izaten zen. Gehienetan ibiltzen ginen paretaren kontra. Hortaz, txapari indar gehiegiz joz gero, bere kontra-ko izaten zen, haren kontra egin eta berriz etortzen baitzen txapa. Neurria bilatzea, horixe izaten zen gakoa”.

Irabazten zuenak, kaniketan bezala, ondokoaren txapa eskuratzen zuen trukean. “Orduan debalde ez zen ezer izaten, dena trukean!” zehaztu du Joxemari Olazabalek.

Joxe Sakristauak gaineratu duenez, txapekin bezala sosekin ere ibiltzen ziren paretaren kontra jolasean. “Paretaren kontra txanpona gehiena arrimatzen zuenak harek irabazten zituen jokoan aritzen ziren gainerantzekoak sosak. Dozena erdi edo igoal ba. Irabaziz gero, bota behar izaten ziren txanponak airean eta kara ateratzen zirenak, haiek irabazlearen poltsikora!”

“Zein dirurekin ibiltzen ginen? ba ez naiz oso ondo gogoratzen, baina



Joxe Eizmendi

“Paretaren kontra txanpona gehiena arrimatzen zuenak harek irabazten zituen jokoan aritzen ziren gainerantzekoak sosak”.

bost xentimokoarekin igoal. Eta bost xentimo garai hartan dirua zen, e!”, gaineratu du.

## KROMOAK

Kromoetan aritzea nesken jolasa izaten zen. Gerra osteko garaiko neskatok denborapasa atsegina topatzen zuten kromoetan. Mahaiaren bueltan bildu ditugun emakumeetarikozko batzuek gogoratzen dute txokolate paperak ekartzen zituela kromo haiek. Maria Esther Arrietak, berriz, erosi egiten zituen. “Ba al dakizu non? Pepe txurreruan denda txiki hartan. Han erosten genituen ‘muñequitos de celuloide’ eta kromoak. Gero egiten genituen gorazeekin moztu eta haiekin ibiltzen ginen jolasean”.

Kromoak bizkarrez jarri behar izaten ziren, jolaskide bakoitzeko bana gutxienez. Eskuarekin haiek estali, eta sortzen zen haizearekin




Miren Zarraga

“Gogoratzen zerate nola eskuari hatsa botatzen genion, kromoari buelta hobeto ematen zitzaiolakoan?”

kromoak buruz gora jartzea lortu behar zen. “Gogoratzen zerate nola eskuari hatsa botatzen genion, kromoari buelta hobeto ematen zitzaiolakoan?” gogoratu du Miren Zarragak.

Bazituzten beste kromo batzuk, gorputzean itsasi eta bertan irudi bat uzten zutenak, kalkamonien parekoak edo. Maria Esther

Arrietaren arabera, belaunean jartzen zituzten, eta atzetik listu eman. ‘Seca, seca mi papel; cuando venga San Miguel; tori, tori bustia; ekatzu lehorra’ abesten genuen, papera kendu eta hantxe gelditzen zen marrazkia”.



Nesken jolasa izan ohi zen kromotan aritzea.

## SOKA SALTOA

Sokasalto, kromoak bezalaxe, nesken jolasa izaten zen. Baziren aldaera diferenteak, baina batipat, iladan jarri eta bata bestearen atzetik saltatzen aritzen ziren. “Gauza polita izaten zen oso. Bi jartzen ziren soka ematen eta besteak, txandaka, saltoan. Txanda galdu edo saltoa gaizki eginez gero, hura soka ematera”, esan du Loren Navarrok.

Beste joku bat izaten zen bikotan aritzea. Salto bakar batean bi aldiz pasa behar zen soka azpitik. “Hura zaila izaten zen, ‘para profesionales’, esan dute mahaiaren bueltan bildu-


tako emakumezkoek.

Sokasaltoan aritzeko baziren beste joku batzuk gaztelerazko abestiz lagundutakoak. “Al cocherito leré”, ‘La sirena, la sirena...’ gogoratu ditu kantuan Mikela Ansak. Miren Zarragari etorri zaio beste abesti bat burura eta emakumezko guztiak hasi dira kantuan.

‘Ursula qué estás haciendo, tanto tiempo en la cocina. Señora le estoy quitando, las plumas a la gallina’

Si las plumas son den oro,

me las tiene que guardar, para hacer una corona a la Virgen del Pilar’




Neskato bat sokasaltoan.

## KIRRINKILOA

Ume garaia orain mende erditik gora bizitu zuten guztiek ezagutu dute kirrinkiloa, kalean goitik behera arrastaka-arrastaka ibiltzen zen uztaia. Miguel Amasen arabera, baina, "jolas handirik, Andoainen behintzat, ez genuen egiten harekin. Izaten zen uztai bat hartu eta, gero, burni bati atzean 'u' bat eginez, uztaiean sartu eta hari bultzaka aritzea. Apustu batzuk egiten ziren baina gutxi. Izan ere, uztai batzuk

izaten baitziren txikiak, beste batzuk haundiak... eta klaro, zeinek eta handiago zuten harek eta gehiago korritzen zuen... Onena izaten zen barila, onena zue-nak...



Bi ume kirrinkiloarekin jolasean.

## TXURRUMURRUKA



Miguel Amas

*"Hamar arteko zenbakiak seinalatzen ziren behatzekin. Hamaika egiten zen mingaina aterata, eta bi belarriri helduta, berriz, hamasei".*

Oraindik ere irauten duen jolas asto samar hori ere ondo ezagutzen dute gaur eguneko aiton-amonek, eurak ere hamaika aldiz ibili baitira jolas horretan.

Paretaren kontra jartzen zen pertsona bat eta haren kontra, lauzpabost, makurtuta eta batek bestearen

hankatar-tean burua sartuta zutela. Prest ote zeuden galdetzeko beste taldekoek galdera egiten zuten: "txurru-murruka katillu subire?" (seguraski, a caballo subiré-tik etorriko zen hura). Behekoek 'sube!' esanaz ematen zuten jokoan hasteko baimena.

Kalean zeudenek egin behar zuten korrika etorri eta haien gainera salto egin. Salto egiterakoan, katea haus-tan bazen 'kortxuba' egin zela esaten zen, ezin eutsi izan ziotela, eta beraz, berriz hasten ziren jokoan. "Salto egin behar izaten zen ahalik eta indar handienaz bi pertsonen arteko tartera. Joxe..., nahi izanez gero proba egingo diagu...", bota dio

Miguel Amasek sakristauari adarra jo nahiean.

'Kortxuba' egiten ez bazen, hau da, behean zirenak goikoei eusteko gai baziren, goikoak hasten ziren esanez: "hamar hamar por cuanto?" eta paretaren kontra zegoenari -hura zen jueza- erakusten zien behatzez zenbaki bat. Behekoek asmatu arte egoten ziren, "hamar hamar por cuanto? por tanto" esanez.

"Hamar arteko zenbakiak", zehaztu du Miguel Amasek, "seinalatzen ziren behatzekin. Hamaika egiten zen mingaina aterata, eta bi belarriri helduta, berriz, hamasei".

## KURKULUXAK




Miren Zarraga

*"Txutxuas egin eta kurkuluxa guztiei buelta guztiak eta denak ongi ematen zizkionak irabazten zuen jokua".*

Arkumea oso tartean behin eta etxe gutxitan izaten zen garai batean. Baina jaten zenean, haragia bezain preziatua izaten ziren ume-entzat, hezur txiki haiek, kurkuluxak. "Kurkuluxa ondo garbitzen genuen eta haiek jolaserako prestatu. Oso

polita izaten zen haiekin jolasean aritzea", dio Loren Navarrok.

Jolasaren arauak nolakoak ziren Miren Zarragak kontatu digu. Jartzen ziren kurkuluxak lur-rean denak posizio berean, begia behe-raka zutela. Gero, botatzen zen pelota bat airera "txutxuas una, txutxuas dos; pones una pones dos" esanez. Pilota airean zen bitarte horretan, esku batekin kurkuluxei eman behar izaten zitzaien buelta, kurkuluxaren lau alde onak osatu arte. Alde horiei deitzen zitzaien, Maria Esther Arrietak gogoratu duenez, 'karnes, pones, zapatitos y nones'.



Kurkuluxak.

"Txutxuas egin eta kurkuluxa guztiei buelta guztiak eta denak ongi ematen zizkionak irabazten zuen jokua", zehaztu du Miren Zarragak.

## POTE-POTEKA

Pote poteka jolasa egiten zen pote batekin eta harekin lurrari joka kontatzen zen bitartean gainontzeoak ezkutatu egiten ziren. Miguel Amas: Zebaketa bukatzerakoan, potea han utzi, eta joan behar zen lagun bila. Ikusten bazuen norbait, potera joan eta harekin lurra jo behar zuen ikusi zuenaren izena esanez. Baina besteak poteari ostikoa lehenago jotzen bazion, berriz ere kontatzera!

## TXINGOA



Loren Navarro

"Harri ona topatzea izaten zen kontua. Harri txapala aurkitu behar zen, hura zuk nahi zenuen zebakira bota eta han gelditzeko".

Txingoa nesken jolasa zen. Igeltso puska batekin txingoa lurtean marraztu, eta harri koskor bati osti-kadak emanez ibiltzen ziren atzera eta aurrera. "Lurtean marrazten genuen 'el aeroplano'", gogoan du Maria Esther Arrietak. "Harri ona topatzea izaten zen kontua", gaine-

Poteekin, baina, egiten zen beste jokurik, askoz ere gaizto eta arrisku-tsuagoa, dudarik gabe. Iñaki Arregik kontatu digunez, "poteari zulo bat egiten zitzaion, eta han hura bota; gero joaten zen karburua ohostutze-ra Renfeko tunelera eta potean puska bat bota. Gero potea, buruz bera sartu, goitik irekita eta atzean zuloa duela. Gero zulo hura bustinarekin tapatzen zen, eta gero karburuaren



Joxepa Ormaetxea

"Etxean a ze errieta pila jaso ditugun txingoa aritzeagatik. Klaro, alpargatak puskatzen genituen eta!"

ratu dio Loren Navarrok; "Harri txapala aurkitu behar zen, hura zuk nahi zenuen zebakira bota eta han gelditzeko".

"Zuen etxe parean", esan du Mikela Ansak Joxepa Ormaetxeari zuzenduta, "beti egoten zen lurtean txingoa marraztuta. Eskolatik etxera

baporea geratzen zen akumulatzen. Gero jartzen genuen metro eta erdi edo mi metroko haga luze bat muturrean periodiko puska bat zuela. Harekin su ematen genion poteari eta Paff! ateratzen zen airean.

Jolas hura arriskutsua zen guztiz. Behin behintzat harrapatu zuen herriko ume bat eta larri zaurituta utzi.

bidean, hanka baten gainean jarri eta hura saltoka pasatzen genuen beti".

"Etxean a ze errieta pila jaso ditugun txingoa aritzeagatik", gogoratu du Joxepak. "Klaro, alpargatak puskatzen genituen eta!"



'El aeroplano' itxurako txingoa.

## YO-YO

Neskek gustokoa zuten oso 'yo-yo' jokua. Batzuen batzuk bazituzten dendan erositako yo-yo dotoreak. Loren Navarrok gogoan du egurrezko bat bazuela berak; Maria Esther Arrietari, berriz, bere amak ekarri zion behin Donostiako Santo Tomas ferian erositako "yo-yo polit eta ele-

gante bat".

Beste batzuek, ordea, gutxiagorekin konformatu beste erremediorik ez zuten izaten, Mikela Ansak, esate baterako: "Bi botoi haundi samar elkarri josi eta haria jarri haren bueltan. Yo-yo harekin ibiltzen nintzen ni."



Mikela Ansa

"Bi botoi haundi samar elkarri josi eta haria jarri haren bueltan. Yo-yo harekin ibiltzen nintzen ni."

## DIABOLOA

Ume askoren etxetan diabolorik ere ez zen sekula izan, erosi egin behar izaten baitzen dendan, eta garai hartan, askok, tripa betetzeko bakarrik pasa behar izaten baitzituzten mila komeria. Ume batzuek, baina, zorteko izan eta inoiz jaso zuten diablo bat oparitan.

"Nik baneukan diablo bat gomazkoa; gorri iluna edo marroia zen", jakinarazi du Loren Navarrok. "Erdian izaten zuen, oraingoek bezala, txapa bat eta hura jarri sokan eta ibiltzen genuen diabloa alde batetik bestera. Zeinek altura gehiagora bota ibiltzen ziren, baita diabloa

hartu eta makilaren gainean eta dantzan jartzeko..., al txorroskilero eta horrelakoetan aritzen ginen.

Nesken jokoa izan arren, mutilak ere, tarteka aritzen ziren diabolotan. "Nik arkupeko etxeko teilatua harrapatzen nuen!", esan du Iñaki Arregik.

# ... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

**G**aínean daukagu maiatza eta harekin batera festen denboraldiaren hasiera: Santa Krutzak iristear daude. Andoainen beti festetan gauden fama daukagu inguruetan, eta garai batean ere halaxe zen. Gurutze Santuaren omenez antolatutako jai haiek zabal-tzen zuten udaberri eta uda garaiko jaien egutegia. Jendea irrikaz egoten zen maitzaren 3a noiz etorriko zain neguan pila-tutako nagiak jaietan suelto botatzeko. Baina andoaindarrek ez ezik inguruko herritarrek ere estimatuak zituzten oso lehe-nengo jai egun haiek: tranbia hartuta oldeka etortzen ziren bistiariak Donostitik-eta, Santa Krutz jaietako prestatutako eki-taldietaz gozatzerara. Ekitaldiak franko arrakastatsuak izaten baitziren: Bertsolariak, orkesta-ren dantzaldia, korrika apos-tuak... eta nola ez, zinta jokoak eta estropadak. Horiek guztiak ekarriko ditugu gogora apirile-ko azken igandeko zenbakian, gu ere festetarako girotzen joa-teko.



Manuel Larramendi  
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko  
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Maddi Trutxuelo. **Argazkiak:** Udal artxiboa, La Salle ikastetxeko artxiboa eta Manu Mujika. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.